

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bi urterik behin



Igor Estankona

Beatriz Chivite bere ohiko argitasunagaz dator *Biennale* (Erein, 2017) honekin, Blas de Otero Bilboko Uria IX. poesia lehiaketa irabazi ondok. Bere betiko argitasuna da ilargiarena, zeharka jasotako eta biderkaturik emandako irudien jokoa: "Iraganean ezagutu ziren./ Etan orain,/ zeru berri honen/ kolore urdina/ elkarrekin begirutzen zuten/ ezezagun pare bat/ baino ez ziren".

Ohikoa dela diot *Pekineko kea* (Pamiela, 2017) akordarazi didalako, ibilitako bideetatik eroan nauelako Beatriz Chivitek atzera. Liburu hartako negua, liburu hartako zurtasuna: "Kanalaren gainean,/ elurra./ Kristalaren aurrean,/ argi txuria". Berririo liburu hartako irudi handi txikiak...

Pekineko kea bikainaren gainean esan nuen errepikatuko dut beraz, *Biennale* delako uzta bereko ardoa, idazkera jori eta joskera arin berberaz ondua. Freskoa, iradokitzailea, interesgarria. Agian arean motelagoa. Eta agian liburu honetan gehiago sakontzen du ekibokoan eta misterioan, zentzu desberdinak har ditzaketan kontzeptuetan: "Itsasertzean distira egiten duen harria/ nire poltsikoan/ iluntzen da". Harri batek bere umeltasuna galdu eta zelan itzaltzen den deskribatzerakoan aukeratu duen hiztegiak bihurtzen du eszena hain iradokitzaile.


Konposizioen finezia beraz agerikoa da, Chiviteren marka. Beraz ezagutzen diogun mutazioenganako gustua, klasikotasunak leundua, nabarmena da lan honetan ere. Eta lehenaldiko

Biennale

BEATRIZ CHIVITE

Erein, 2017

Beatriz Chivite Ezkieta idazlea
(Iruña, 1991).



argazkiak polaroid argitsuen antzera dakartzatza: "Eguzkiaren azpian irakurtzen zenuen/ ni zume zuriaren azpian lotan/ hanka bat belarrean luzatuta/ bestea toalla arrosaren gainean". Ikuskari bateko kolore, ñabardura, proportzioez ohartzten den idazlea da hau.

Badauka *Biennale* hala ere, *Pekineko kearen* aldean, halako joera bat ertzak borobiltzeko. Ohartu naiz betelan gehiago dagoela lan honetan. Lehiaketetarako birziklatzen diren poema horiek, ebakitzailaegiak gerta ez daitezten kamusten diren ziriak, arinegi bezala amaitzen diren konposizio erdibidekoak...

halabeharrez, antza, halakoak sartu zaizkio isilka Chiviteri *Biennale*-n, frogatuz bezala bi urterik behin agian bai, baina urtean bi aldiz zaila dela liburu beti bikain, beti perfektuki birfinduak ateratzea. ■